

I. AITOR SARASUA LEHIAKETA

Biziki ontsa joan da I. AITOR SARASUA bertso paper lehiaketa. Lehenbizi, parte hartzaile guztiak eskertu nahi ditu Bertsoari Lagunak elkarteak, eskualdearentzat eta, oro har, euskararentzat hain garrantzitsu izan den Aitor Sarasua omentzeko sariketan parte hartzeagatik. Bestalde, sari banaketa bertso bazkari/afari batekin egitea da gure asmoa. Uda jin aitzin ezinezkoa balitz, beste molde bat atzemanen genuke.

EPAIA:

Epaimahaia bertsolari batek, bertsozale batek eta epaile lanetan arituriko lagun batek osatu dute. Ezizenez izenpeturiko sorta andana jaso zuten epaileek eta neurri, gai eta estilo biziki desberdinak aipatzen zituzten lanen arteko hautua egin behar izan dute. Sail bakoitzean hiru sorta hautatu badituzte, helduen saileko bi sortak aipamen berezia jaso dute. Lan guztiak irakurri eta aztertu ondoren, hara epaimahaikideen ustez saria merezi zuten sortak

1. Helduen maila:

- 1. saria: Gorostiari (Ander Fuentes Mujika)
 - 2. saria: 15 urtez (Elixabet Etxandi)
 - 3. saria: Ni ere gaixotu nintzen (Urko Egaña Calderon)
- Aipamen bereziak: Eskutik eskura (Moises Enbeita) eta Bakardadearen Itzala (Mizel Mateo)

2. Gazteen maila:

- 1. saria: Munduko injustiziak (Nahia Etxeberri Lopepe)
- 2. saria: Euskal Herriko ihateak (Leina Alkhat Larrandaburu)
- 3. saria: NI artzaina (Kemen Bidegain Bergara)

Senpereko Larraldea baserrian
2021eko martxoaren 18an
BERTSULARIEN LAGUNAK elkarte

HELDUEN MAILA – LEHEN SARIA

GOROSTIARI

DOINUA: Kantuz sortu naiz eta (7 puntutan)

EGILEA: Ander Fuentes Mujika

1

Mendizale batentzat
hain da atsegin
ezpondetan egin ohi
duen ahalegina
materiala behar da
komeni adina
zira, motxila, botak
baditut jakina
baina denetan badut
arrunt lagun mina
gorosti makil eder
gogor bezain fina
oraindik bizi zela
atautxik egina

3

Bide luzea egin
baduzu lehendik
nahiz eta ez espero
hatsa haunditzerik
sumatzen duzu estu
petxua beterik
nekez ez duzunean
pausoa ematerik
ez denean gelditzen
pauza bat besterik
bi besaurreak makil
gainean gorderik
niretzako ez dago
postura hoberik

5

Bidez baldin bazara
noizbaiten okertu
pazientzia behar dela
lehenbailehen ulertu
patxadan egon eta
ez zaitez aihertu
ondoren ingurua
makilaz aztertu
altxor txikitxoren bat
igual bada gertu
puntarekin iratze
mordoxka baztertu
eta onddo bat bixtan
hara non agertu

2

Biderik gogorrena
bihurtuz erraza
eskuekin helduta
ze nolako dantza
pausoa emateko
badaukat zalantza
makilak orekatzen
dit laister balantza
makulu pasatzeko
putzuak, lokatza
badago larra, sasi
iratze, arantza
bidea zabaltzeko
erreminta latza

4

Mendi ibilera da
beti mamitsua
sorpresaz betea da
paisaia itsua
azienda inoizean
da bitxo pisua
berak niregatik nahiz
esan berdintsua
temoso bada parez
pare betizua
makilarekin eman
ezkero abisua
beregana pasatzen
da nire izua

6

Nire oinazeekin
dudan harremana
traba ez dudanean
niretzat da zama
kiropraktikoan dut
denbora emana
fisioterapiari
sesio andana
hainbeste aspirina
ere ez da plana
makilak egiten du
niretzako lana
belauneko min hori
arintzen didana

7

Bapatean aurkitu
zuhaitzan aurrean
gereziondo baten
enbor zaharrear
mokadu bat egin nahi
bidenabarrear
beheko fruituak daude
itxura txarrean
goxoenak urruti
goiko adarrean
makila luzatuta
zuzen indarrean
ttak goxoenak hartu
kolpe bakarrear

9

Askok ohitura baitu
mendirra joateko
natura nola inoiz
ez dugun kalteko
distantziak haundiak
direla tarteko
jendea ikusten da
urruti antzeko
nola baserritarra
halaxe kaleko
eskutako makila
altxatuta suelto
balio du urrundik
aio esateko

8

Ikuspegi ugari
mendi panoraman
batzutan galdu bainaiz
nahiz mapa eraman
bapatean murgilduz
abenturan xarman
soinu azkarki daude
uren pentagraman
sarri eroria naiz
bere amaraunan
makila sartu ohi dut
aurreko sakanan
ikusteko errekek
zenbat ur daraman

10

Berekin uxatuak
hainbat arerio
bidea aukeratzen
zenbat gomendio
egoera jartzean
itsusi, serio
moldatzen gara bere
laguntza medio
makila mendian maiz
da erremedio
baina pena bat badut
berekin dedio
mandeuliak hiltzeko
ez baitu balio

LAPADIKO

HELDUEN MAILA – BIGARREN SARIA

15 URTEZ

EGILEA: Elixabet Etxandi

DOINUA: Neska zaharrak eta apaiza

1

2006 urte horretan
gazte nintzen, malizian
inoxenta iritzian,
Ene bizia egin nahi nuen
Miami zein Galizian.
Baina patuak hartu ninduen
bere giltzape itxian,
istripuz Mitsubishian.
Azken 15 urte hauetan
komak dakarren krisian,
Ene bizia hilzorian da
hilzoriaren bizian.

3

Deus erran gabe badator beti
txixtukatuz Xabier Lete,
Aita dela, baliteke.
Hitz egin gabe ene bihotza
bere ausentziaz da bete.
Erizaina da usu kexatzen
txistua baitzaio neke:
"Monsieur, veuillez bien arrêter".
Ene kopeta muxukatuta
badoa atetik tente,
Isiltasuna mila hitz baino
hobea izan daiteke

5

Lehen gaztetan gogotsu ginen
ni ere nintzen horrela,
Iraultzaile, errebela.
Lagunekilan nabaritzen dut
mundua aldatu dela.
Orai biziko ardatzat dute
Iana/etxea/Apple-a,
Ardi tropa bat bezela.
Erran nahi diet: "iratzar eta
mundua aldatu bela!"
Iduritzen zait enekin betan
koman sartuak direla

7

Paradisuan tunel argitxu
bat pentsatzen nuen ate,
Ez da hori izan bate.
Goiz normal batez iratzarri naiz
ene perfusioa kate.
Zenbat denbora galdua dudan

2

Halere dena entzun dezaket
ene komatik astiro,
eztabaida eta giro,
Atzo ama zait bisitara jin
bere Lindt eta Haribo.
Bere bizia kontatzen dabil
gelan jeitsi eta igo,
"Atzo hil zaigu Galindo!"
Berdin zait ama, nik ene baitan
borroka bat dut egingo,
"Maite zaitut" bat egun batean
entzun dezazun berriro.

4

Ene ahizpa kultureta da
gelara sartzen ardura,
Maite du literatura,
Ateratako azken nobela
irakurtzen dit gustura.
Baina Atxaga 3 orenez
entzutea da tortura,
Pazientziak badu muga!
Nahiz eta komak txarretik duen
berekin sartu zait duda,
literatura nahiago dudan
edo litera ta ura

6

Goizero dator erizain bera,
eta txertoen usaina,
Garbiketako mahaina.
Lan bortitz horrek hartua dio
bere plazerrari gaina.
Usu marmarka entzun dezaket,
presioaren tamaina,
"Nola egingen dut, baina?"
Bihar datorren mundua nola
izan daiteke bikaina,
Eria baino eriagoa
baldin bada erizaina

eta zenbat bizi parte,
esnatuko naiz, jo ta ke!
Jende xumeak bere burua
salbatu ote dezake?
Ez dut gehiago lorik eginen
mundua esnatu arte

BYLLI ELLIOT

HELDUEN MAILA – HIRUGARREN SARIA

NI ERE GAIXOTU NINTZEN

EGILEA: Urko Egaña Calderon

DOINUA: Mari errauskin (11 kantatzeko)

1

Barkatu, Covid-19ak
ez nau kohibitzen,
zeren tamalez gaitz horrek soilik
ez du existitzen!
Neure zilborra ukitzen
ta barrunbeak trunkiltzen
orain hasi naiz, baina lehenago
hasi behar nintzen. (Bis)

3

Goizean goizik ia ez nintzen
ohetik jaikitzen,
ez banituen aurrez eskuak
lurrean ipintzen!
Nahiz ahalegindu mugitzen
ez nintzen kapaz sentitzen!
Laguntza eskatu eta berriro
oheratzen nintzen. (Bis)

5

Urte errazak izan direnik
ez zait iruditzen,
bere denbora behar delako
zikina garbitzen.
Zer erreza den amiltzen!
Ta zeinen zaila zutitzen...
Argi izpi bat ikusterako
berriz jausten nintzen. (Bis)

7

Besteak beste Logroño, Irun,
edo Biarritzen
nituen minei buruzko zenbait
diagnosi biltzen
ta iritziak aditzen
aritu arren berdin zen,
zeren etxera irten bezala
itzultzen bainintzen! (Bis)

2

Bihotz barrutik ateratako
errima ta hitzen
bidez nahi nuke saiatu negar-
zotinak isiltzen.
Zutik egoteak mintzen
ninduelako sufritzen
nuen, ta zulo sakon batean
hondoratu nintzen. (Bis)

4

Gerora, hankak gisan gerria
pixka bat arintzen
hasiagatik gero egunak
ez zuen argitzen!
Oinez hastean ibiltzen
ez nuen minik gaingitzen!
Ta ondorioz sarri etxean
geratu ohi nintzen. (Bis)

6

Fisikoki ta mentalki bizi
nituen baldintzen
menpe egonda irtenbiderik
ez nuen aurkitzen!
Nahiz saiatu ahalegintzen
minetara egokitzen,
biharamunez berriz hutsetik
hasi behar nintzen. (Bis)

8

Diagnositan aipatutako
zenbait artritisen
sintomak ziren nituen gaitzen
izen ta abizen.
Nola gihar hala mintzen
motorrak neuzkan gelditzen!
Ta ni lehenengo arrankerako
izorratzen nintzen. (Bis)

9

Bi urte t'erdi pasatzerako
min asko eztitzen
hasi ziren ta hor hasi nintzen
argirantz hurbiltzen.
Ito nahi ninduten bitsen
ta hain momentu bortitzen
kabi izan zen zulo hartatik
onik irten nintzen. (Bis)

10

Minez gaudela ez da erreza
pozarren bizitzen,
baina bizitzen asmatuz gero
gaude pozak hiltzen!
Ez zait buruan kabitzen
zaila baita entenditzen,
gaur nola aurkitzen naizen ta atzo
nola egon nintzen! (Bis)

UNIZ

HELDUEN MAILA – 1. AIPAMEN BEREZIA

ESKUTIK ESKURA

EGILEA: Moises Enbeita

DOINUA: Iparragirre abila zela

1

Urratu baten garrasi edo
dolu-irrintzi zantzoa,
oroitzapenen enbatak dakar,
abaro bila bertsoa.
Aitor zure omenez,
eta zeure baimenez,
doa gaur nire mintzoa,
utzi diguzun ereduaren
miresmen xume, zintzoa.

3

Udaberriko azken hatsekin
iritsi zinen mundura;
udazkeneko hatsak eraman,
ez dut maite haize hura.
Hegoa ta iparra,
irria ta negarra,
hasera eta helmuga.
Bizi nahi eta bizi ezina,
biak eskutik eskura.

5

Hegoaldetik Iparraldera,
bizitzaren eragina;
muga gabeko Euskal Herria
antzematearen grina.
Gazte ameslaria,
uso mezularia,
Itsasun kabi egina.
Belaunik-belaun iraungo duen
testigantzaren lagina.

7

“Bertsularien lagunak” kide,
ikastola lantegia,
irakaslea Seaskan eta
bestean lehendakaria.
Gurpildun silla aulki,
ezintasunak aurki,
gehiegizko lazzeria.
baina ez zizun kendu “bizitza
irauteko” energia.

2

Estu-estua ez bazen ere,
bagenuen harremana,
bertsolaritzan ildo berean
jarduteak zekarrena.
Txapelketak aldaba,
lekukoa Xilaba,
Iparraldean barrena.
Bilatu gabe aurki nezake
nonahi zure aztarrena.

4

Zazpi urtekin, Almen eskolan,
piztu zitzaizun ahalmena,
Iparragirre, Xanti handia,
akuilari nabarmena.
Zorrotza omen zinen,
hala zion bederen,
eta joria sormena.
Erraz kantatzen zuena eta
bertsolariaren sena.

6

Kilometroak, Ibilaldiak,
bagera edo bagara;
Nafarroaren oinatz tinkoak
eta Euskaraz Araba.
Herriaren Urratsak,
geroaren zalantzak,
Xiberutik Baionara.
Zure urratsen norabidean
iparrorratza euskara.

8

Bertsolaria, euskalzalea,
abertzalea gartsua,
hiru hitzekin, labur esanda,
nor zen Aitor Sarasua.
Loramendin dantzari,
Biltxokon zuzendari,
familian gurasua.
Bidatz-orria euskara eta,
bertsoa barneko sua.

HORI ETA GEHIAGO

HELDUEN MAILA – 1. AIPAMEN BEREZIA

BAKARDADEAREN ITZALA

EGILEA: Mizel Mateo

DOINUA: Gogoratuko zara

1

HLM zahar batek hirurogei ate
Emazte bat bizi da mundutik aparte
Biziak egin izan dio ainitz kalte
Behin betiko bizkarra erakutsi arte
Biziak egin izan dio ainitz kalte
Ez du gorroto bainan ez du gehio maite.

3

Sagar tarta prestatzen pasa du oreana
Etxean panpinean ezarri du dena
Semeari eskeintzen dio astelehena
Horregatik jantzi du gona ederrena
Semeari eskeintzen dio astelehena
Bera baita bizirik mantentzen duena.

5

Bere arrain gorrien arteko liskarra
Ezin piztuz ari den telebista zaharra
Bi orduz askatu du barneko marmarra
Batzutan sendi baitu libratu beharra
Bi orduz askatu du barneko marmarra
Semea da ulertu dezakeen bakarra.

7

Antidepressiboak ditu elikagai
Eta bakardadea egunero etsai
Senarra joan zitzaion gatua ere bai
Etxea haundiegia bihurtu da orai
Senarra joan zitzaion gatua ere bai
Ez du semea ere betiko galdu nahi

2

Aspaldian nehork ez dio egin hitzik
Pantailaz bestaldetik Jean Pierre Pernaud-k ezik
Jendearen begitan ez da gehio fitxik
Biziaren zentzua galdua du kasik
Jendearen begitan ez da gehio fitxik
Imueble bateko zenbaki bat baizik.

4

Gatuak dibortziatu duenez geroztik
Konpainia guti da hurbiltzen auzotik
Bere seme bakarra maite du erotik
Indar oroz tinkatu nahi luke lepotik
Bere seme bakarra maite du erotik
Ez dio ezer bainan ez dio inportik.

6

Aratsaldea pasa dute parez pare
Bainan nehor ez baita denboraren jabe
Berak ere utziko du agurtu gabe
Eta bestaldi arte eginen du alde
Berak ere utziko du agurtu gabe
Tartarik ez du hunki bainan ez da grabe.

8

Aldi guziz bezala berrien orduan
Partekatutako bi orenen buruan
Pott bat pausatu dio ezpain inguruan
Maiteago duenik ez baita muduan
Pott bat pausatu dio ezpain inguruan
Ta berriz ere sartu du izotzgailuan.

M. BERNATA

GAZTEEN MAILA – LEHEN SARIA

MUNDUKO INJUSTIZIAK

EGILEA: Nahia Etxeberri Lopepe

DOINUA: uztailaren 19a

1

Joan den astean ene karrikan
promenatzen nintzelarik
emazte zahar bat ikusi nuen
espaloiean jarririk
esku mehe bat eni luzatuz
eta doi-doi bizirik
ono sekulan ez nuen ukan
holako pena handirik
ohartu bainiz injustizia
gurekin dela oraindik

3

Munduko gauza hobereena zen,
baina gaur zer da natura?
plastiko eta petrolioan
den-dena hondoratu da
liliak ilun, arbola gutti
beltz bilakatu da ura
hau ikustean beldurtua niz
eta sortua zaut duda
Ez da gehiago Lurra planeta
izena du Kutsadura

5

Migratzaileek barku batean
itsasoa trebeskatu
presidenteeek beren herrian
ez dituzte nahi onartu
egoera hau injustua dela
den denak gira ohartu
Eta uste dut noizbait beharko
ginukela esku hartu
Migratzaileak babes ditzagun
ta Macron ur pean sartu

2

Munduko gauza larrienetan
lehen lerroan da gerla
herri guzietan jende guziek
bizia galtzen horrela
Etxe hautsiak, jende tristeak
gorputz hilak mela-mela
horrengatikan milaka jendek
altxa behar dute bela
Etsaiak ados diren bakarra
da hondamendia dela

4

Katalogoak dio jokoak
norentzat diren eginak
saltegiak bitan moztuak dira
arrosak eta urdinak
muttikoentzat helikoptero,
heroiak eta harginak
neskatoentzat sukaldetxoa,
panpina ta erreginak
Baina aurreiritzirik gabe
den denak gira berdinak

6

Denbora huntan munduan zehar
injustizia da gaia
hori guzia aldarazteko
momentua da oraia
erreka ttipi ainitzetatik
beti sortzen da ibaia
denek erreka izaiteari
eman diezaiozun baia
Mundu hobe bat eraikitzeko
oraindik baita garaia

Astearta

GAZTEEN MAILA – BIGARREN SARIA

EÜSKAL HERRIKO IHAUTEAK

EGILEA: Leina Alkhat Larrandaburu

DOINUA: Lagünak (Xiberotarrak taldea)

1

Bai, Eüskal Herri osoan dira
ospatzen diren ihauteak
Eta audela mozorrontako
egiten (dü)tügü haütüak
Egün ürhentzin gü denak gira
denetan bai akhitüak
Ohitzapenak emaiten deikü
kantian dügün haizeak

3

Gipuzkoan bai egiten düe
intxixuz betherik diren plazak
Eta sorginak hüillantzen dira
esküan dütüe erratzak
Ta zomorroek бүryan dütüe
segür handi diren gaüzak
Ta basandereek ekarten (dü)tüe
aski ttipi diren azak.

5

Eta Bizkaian ikusten (dü)tügü
atorrak gure aitzinean
Eta laminak ez dira hekin
Ari dira kantan bestaldean
Eta urte oroz kantore berriak
emaiten dütüe portüan
Eia gizonak ta emazteak
izanen diren alkarrekin.

7

Lapurdin dira desfileekin
jentez betetzen herriak
Kaskarrot eta Ponpiera dira
eta Kotilungorriak
Personajekin jenten gainera
horra dira bai erriak
Erri horiek guri kontatzen düe
Lapurdin diren berriak.

2

Baxe Nafarroan ihautez dira
Ageri segür bai bolantak
Ta makilariak gerrian düe
hain ejerrak diren zintak
Zirtzilak dira koloretsüz diren
izigarriko galantak
Eta dantzariak arropa pean
dütüe xuri diren kolantak.

4

Eta Araban egiten düe
mozorro lehiaketak bai
Markitos sü pean ezarten düe
horren egitera dira gai
Ta haur güziak ari dira kantan
lari lara lara larai
Ta ihautekin Arabakoak
Dira izigarri alai.

6

Nafarroan dira ikusten hirian
hartzak eta joaldünak
Eta plazan ere ikusten (dü)tügü
maite dütügün lagünak
Txintxilek düe hartza iratzartzen
ta lüzatzen ere egünak
Ta joaldünak dira haboroenik
Egürükitzen dütügünak.

8

Ta Xiberoan ikusten dira
Maskaradak plaza erditan
Eta kauterak hor ageri dira
süa egiten karrikan
Bedeziak ere ürrentzean dira
jiten Pitxuren bisitan
Maskaradetan gük (dü)tügü izarrak
Dirdiratzen begietan.

GAZTEEN MAILA – BIGARREN SARIA

NI ARTZAINA

EGILEA: Kemen Bidegain Bergara

DONUA: Astoa ikusi nuen

1

Pottoka ikusi dut
mendian saltoka
Aske bizi zen eta
ez zuen nahi soka
Xaiak airean ziren
elgarri mokoka
Mendian denak dira
xaia ta pottoka

3

Errekaren ondoan
da artzain etxola
Egurrez egina da
piskat da kakola
Nik ezin dut joan harat
badut ikastola
Inguruan dena da
zuhaitz ta arbola

5

Nik handituta nahi dut
artzaina bat izan
Mendian bizi eta
anitz ardi ukan
Ardiak eskuz deitzi
bildotsa eskutan
Gasnak eginen ditut
kantari bertsotan.

2

Udaberrian bada
beti aldaketa
Artzainak egiten du
ardi ikusketa
Denak igotzen dira
ardi xakur eta...
Han urtero iten dute
mendiaren festa

4

Nik artzain xakurra dut
xuri grisa dena
Bera bai izanen da
xakur muñuñuena
Begi bat marroina du
bestea urdina
Biziki abila da
lagun ederrena